6830

AGINDUA, 2008ko urriaren 23koa, Kultura sailburuarena, Gorlizko Udalari soinuaren maiztasun modulatuko uhin metrikoen bidezko irrati-hedapenaren zerbitzurako baimena emateko dena.

Martxoaren 22ko 138/1994 Dekretuak Euskal Autonomia Erkidegoko udal erakundeei soinuaren maiztasun modulatuko uhin metrikoen bidezko irrati-hedapenaren zerbitzu publikorako baimena emateko modua arautzen du. Gorlizko Udalak, dekretu horretan ezarritakoari jarraituz, zerbitzu hori eman ahal izateko behar den titulu juridikoa lortze aldera hasi beharreko prozedura hastea eskatu zuen. Horretarako, Dekretuaren 3. artikuluan zehaztutako dokumentazioa bidali zuen.

Estatuko Administrazioak irratsaioak irrati-espektroa erabiliz egin ahal izateko nahitaezko maiztasunaren erreserba egin eta onetsi ondoren, proiektu teknikoa bidali zitzaion. Administrazio horrek proiektu teknikoa onetsi zuen, ondoren azaltzen diren parámetro teknikoekin.

Proiektu teknikoa onartu ondoren, dagokion baimena eman behar da, martxoaren 22ko 138/1994 Dekretuaren 5. artikuluaren arabera, hau da, udal erakundeek soinuaren maiztasun modulatuko uhin metrikoen bidezko irrati-hedapenaren zerbitzua eman ahal izateko behar duten titulu juridikoa.

Horiek horrela izanik, Gorlizko Udalak eskatuta hasitako espedientea ikusirik eta martxoaren 22ko 138/1994 Dekretuak ematen dizkidan ahalmenez baliatuz, honako hau

EBATZI DUT:

Lehenengo artikulua.– Gorlizko Udalari baimena ematea soinuaren maiztasun modulatuko uhin metrikoen bidezko irrati-hedapenaren zerbitzua emateko, kudeaketa zuzena formularen bidez. Proiektu teknikoaren behin behineko onespenaren arabera, parametro hauek aintzat hartu beharko dira:

– Koordenatu geografikoak: 02W5521/43N2455.
– Kota (m): 125.
– Emisioaren izena: 256KF8EHF.
– Maiztasuna (MHz): 107,8.
– Gehienezko irrati-potentzia itxurazkoa (W): 50.
– Ekipo transmisorearen gehienezko potentzia izendatua (W): 100.
– Ekipo transmisorearen irteerako potentzia baimendua (W): 80.
– Sistema erradiatzailea (mota/elementuak): Dipolo/1.
– Antenaren gehienezko irabazia: 0.
– Galerak elikaduran (dB): 2.

6830

ORDEN de 23 de octubre de 2008, de la Consejera de Cultura, por la que se otorga concesión del servicio de radiodifusión sonora en ondas métricas con modulación de frecuencia al Ayuntamiento de Gorliz.

De conformidad con lo dispuesto en el Decreto 138/1994, de 22 de marzo, por el que se establece el régimen de concesión del servicio público de radiodifusión sonora en ondas métricas con modulación de frecuencia para las Entidades Municipales de la Comunidad Autónoma de Euskadi, el Ayuntamiento de Gorliz solicitó la iniciación del correspondiente procedimiento, dirigido a la obtención del título jurídico habilitante para la prestación de tal servicio. A tal efecto, se remitió la documentación que viene exigida en el artículo 3 de dicho Decreto.

Instada y aprobada por la Administración del Estado la imprescindible reserva de frecuencia para que se puedan verificar las emisiones radiofónicas a través del espectro radioeléctrico, se remitió el oportuno Proyecto Técnico, que fue igualmente aprobado por aquella, con los parámetros técnicos que luego se explicitan.

Una vez que se ha aprobado tal Proyecto Técnico procede, de conformidad con el artículo 5 del reseñado Decreto 138/1994, de 22 de marzo, el otorgamiento de la correspondiente concesión, como título jurídico legalmente exigido para la prestación del servicio de radiodifusión sonora en frecuencia modulada, por las Entidades Locales.

En su virtud, visto el expediente de referencia instado por el Ayuntamiento de Gorliz, dentro de las facultades reconocidas en el artículo 5 del Decreto 138/1994, de 22 de marzo,

RESUELVO:

Artículo primero.– El otorgamiento de la concesión del servicio de radiodifusión sonora en frecuencia modulada al Ayuntamiento de Gorliz para su prestación bajo la fórmula de gestión directa que, de acuerdo con la aprobación provisional del proyecto técnico, deberá prestarse atendiendo a los siguientes parámetros:

– Coordenadas geográficas: 02W5521/43N2455.
– Cota (m): 125.
– Denominación de la emisión: 256KF8EHF.
– Frecuencia (MHz): 107,8.
– Potencia radiada aparente máxima (W): 50.
– Potencia máxima nominal del equipo transmisor (W): 100.
– Potencia de salida autorizada del equipo transmisor (W): 80.
– Sistema radiante (tipo/elementos): Dipolo/1.
– Ganancia máxima de la antena: 0.
– Pérdidas en alimentación (dB): 2.

– Erradiazio-sektoreak (graduak): ez-direktiboa.
– Antenaren zentro elektrikoaren garaiera, lurrarekiko (m): 9.
– Mastaren garaiera (m): 9.
– Benetako gehienezko garaiera (m): 135.
– Emisioaren polarizazioa: zirkularra.

Bigarren artikulua.– Baimen honetaz baliatu ahal izateko Gorlizko Udaleko legezko ordezkari baimenduak agindu honen eranskina sinatu beharko du, bertan agertzen baitira zerbitzuaren ezaugarriak eta araubidea, martxoaren 22ko 138/1994 Dekretuaren 5.2 artikuluari jarraituz.

Vitoria-Gasteiz, 2008ko urriaren 23a.

Kultura sailburua,
MIREN AZKARATE VILLAR.

ERANSKINA

UDALEN TITULARTASUNEKO EMISOREEK SOINUAREN MAIZTASUN MODULATUKO UHIN METRIKOEN BIDEZKO IRRATI-HEDAPENAREN ZERBITZUA EMATEKO ARAUBIDEA

1.– Araubide juridikoa.

Udalen emisoreek ematen duten soinuaren maiztasun modulatuko uhin metrikoen bidezko irrati-hedapenaren zerbitzua apirilaren 8ko 11/1991 Legean eta martxoaren 22ko 138/1994 Dekretuan ezarritakoaren arabera ematen da. Aipatutako legea udalen irrati-hedapeneko emisoreei buruzkoa da eta Dekretua, berriz, Euskal Autonomia Erkidegoko udal erakundeei soinuaren maiztasun modulatuko uhin metrikoen bidezko irrati-hedapenaren zerbitzu publikorako baimena emateko araubideari buruzkoa.

2.– Zerbitzuaren emakidaduna.

Zerbitzua emateko baimena jaso duen udalerriak eman beharko du zerbitzua eta, horretarako, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legeak ezartzen dituen zuzeneko edozein kudeaketa-formulaz baliatu ahal izango da (apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 85.3. artikulua). Baimen hori ezin da eskualdatu.

Hasieran aukeratutako formula aldatzen baldin bada, horren berri eman beharko zaio Euskal Autonomia Erkidegoan gizarte-komunikabideen alorrean eskumena duen organoari. Horretarako, hiru eguneko epea izango da, udal zerbitzua emateko formula aldatzeko erabakia hartzen den egunetik kontatzen hasita.

Udalak zerbitzua emateko aukeratzen duen formula dena dela ere, azpikontratuak prestazio osagarrietarako

– Sectores de radiación (grados): no directiva.
– Altura sobre el suelo del centro eléctrico de la antena (m): 9.
– Altura del mástil (m): 9.
– Altura efectiva máxima (m): 135.
– Polarización de las emisiones: circular.

Artículo segundo.– La presente concesión queda, en todo caso, sujeta la suscripción por el representante legal autorizado del Ayuntamiento de Gorliz del documento anexo, en el que, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 5.2 del Decreto 138/1994, de 22 de marzo, se establecen las características y régimen del servicio que se concede.

En Vitoria-Gasteiz, a 23 de octubre de 2008.

La Consejera de Cultura,
MIREN AZKARATE VILLAR.

ANEXO

RÉGIMEN DE PRESTACIÓN DEL SERVICIO DE RADIODIFUSIÓN SONORA EN ONDAS MÉTRICAS CON MODULACIÓN DE FRECUENCIA POR EMISORAS DE TITULARIDAD MUNICIPAL

1.– Régimen jurídico.

El servicio de radiodifusión sonora en ondas métricas con modulación de frecuencia por emisoras de titularidad municipal se presta al amparo y de conformidad con lo dispuesto en la Ley 11/1991, de 8 de abril, de emisoras municipales de radiodifusión sonora, del Decreto 138/1994, de 22 de marzo, por el que se establece el régimen de concesión del servicio público de radiodifusión sonora en ondas métricas con modulación de frecuencia para las Entidades municipales de la Comunidad Autónoma del País Vasco, y demás normativa de ordenación de las telecomunicaciones y de contratación de gestión de los servicios públicos.

2.– Concesionario del Servicio.

El servicio deberá prestarse en todo caso por el Municipio concesionario, a través de cualquiera de las fórmulas de gestión directa previstas en la normativa reguladora de las Bases del Régimen Local (artículo 85.3, de la Ley 7/1985, de 2 de abril), siendo intransferible.

Cualquier modificación en la fórmula inicialmente acordada, para la cual se haya acordado la concesión del servicio, deberá ser notificada al órgano de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco competente en la materia de medios de comunicación social, dentro de los tres días siguientes a la fecha del acuerdo municipal que propicie tal cambio en el régimen de prestación del servicio.

Independientemente de la fórmula acordada por el Municipio concesionario para la prestación del servicio,

baino ezingo dira egin, eta errespetatu egin beharko ditu administrazio publikoekiko kontratuetarako araudi orokorrean jarritako mugak.

3.– Irrati-espektroa erabiltzea.

Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio Orokorrean gizarte-hedabideen arloan eskumena duen organoak formalki jakinarazten dituen parametroei jarraituz emango da zerbitzua, eta emakidadunak ezingo du, inola ere, bere aldetik aldatu.

Parametro teknikoetan eragina duen gorabehera oro aipatutako administrazio organo horri jakinarazi beharko zaio, eta emakidadunak aldez aurretik administrazioaren organo eskudunaren baimena izan beharko du emandako parametro teknikoetan egindako aldaketak egiteko.

Emakidadunak onartu egin beharko ditu parametro teknikoetan egindako aldaketak, aldaketa horiek koordinazio arrazoiengatik, irrati-espektroaren ustiapena hobetzeko arrazoiengatik edo interes orokorreko edozein arrazoirengatik egiten diren kasuetan, eta baimena ematen duen organoak aldaketa horiek formalki jakinarazten baditu.

Nolanahi ere, irrati-espektroa erabiltzeari eta hartaz baliatzeari dagokionez, ezarrita dauden erabaki eta xedapenek diotena errespetatu beharko da, eta horren titular den administrazioak ezartzen dituenak ere bai. Bestalde, jabari publiko hori era pribatiboan erabiltzeagatik ordaindu beharreko tasa eta diru kopuruak ordaindu beharko dira.

4.– Zerbitzuaren prestazioa eta programazioaren edukia.

Apirilaren 8ko 11/1991 Legean ezarritakoaren arabera, egiten diren emisio guztietan honako printzipio hauek bete beharko dira:

– Ematen diren informazioak objektiboak, egiazkoak eta inpartzialak izatea.

– Informazio soila eta iritziak bereiztea. Iritziak ematen dituztenak identifikatzea eta beraien adierazpenak askatasunez egitea, Konstituzioaren 20. artikuluko 4. paragrafoan agertzen diren mugak errespetatuz.

– Aniztasun politikoa, erlijiosoa, soziala, kulturala eta linguistikoa errespetatzea.

– Pertsonen ohorea, intimitatea, irudia eta herritarrek onartuta dituzten gainerako eskubide eta askatasunak errespetatzea.

– Gazteak eta haurrak babestea.

– Berdintasun-balioak errespetatzea.

Dena delakoa ere zerbitzua kudeatzeko aukeratzen den formula, udalbatza arduratuko da lehen aipatutako

la subcontratación del servicio se limitará a las prestaciones accesorias, estando sujeta, en todo caso a cuantos límites y procedimientos se encuentren fijados en la normativa general de contratos de las Administraciones Públicas.

3.– Uso del espectro radioeléctrico.

El servicio se prestará bajo los parámetros técnicos formalmente notificados por el órgano competente de la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco en medios de comunicación social, y bajo ninguna circunstancia se alterará unilateralmente por la concesionaria.

Cualquier circunstancia que incida en los parámetros técnicos de prestación del servicio deberá ser inmediatamente notificada al citado órgano administrativo, quedando sujeto el concesionario a previa autorización por el órgano administrativo competente para verificar cualquier modificación en los parámetros técnicos adjudicados.

El concesionario vendrá obligado a asumir toda modificación de los parámetros técnicos asignados, cuando los mismos tengan su causa en razones de coordinación, mejora en la explotación del espectro radioeléctrico, o cualquier causa de interés general, y sea formalmente notificado por el órgano concedente.

En todo caso, en cuanto al uso y disfrute del espectro radioeléctrico a través del cual presta el servicio de radiodifusión concedido, estará a los acuerdos y disposiciones que tenga fijados o llegue a establecer la Administración titular del mismo, abonando las tasas y cantidades que por la utilización privativa de dicho dominio público se establezcan formalmente.

4.– Prestación del Servicio y contenidos de la Programación.

De conformidad con lo dispuesto en la Ley 11/1991, de 8 de abril, en todas las emisiones que se verifiquen deberán quedar salvaguardados los siguientes principios:

– La objetividad, veracidad e imparcialidad de las informaciones.

– La separación entre informaciones y opiniones, la identificación de quienes sustentan estas últimas y su libre expresión, con los límites del apartado 4 del artículo 20 de la Constitución.

– El respeto al pluralismo político, religioso, social, cultural y lingüístico.

– El respeto al honor, a la intimidad de las personas, a la propia imagen y a los demás derechos y libertades reconocidos a los ciudadanos.

– La protección de la juventud y de la infancia.

– El respeto a los valores de igualdad.

Sea cual sea la fórmula de gestión adoptada, sin perjuicio de los órganos que a tal efecto puedan estable-

printzipio horiek betetzen direla kontrolatzeaz eta bermatzeaz, horretarako ezartzen diren organoek ere egin ahal izango dutela ahaztu gabe.

Emititzen den programazioan euskararen presentzia bermatu behar da 138/1994 Dekretuaren 2. artikuluarekin bat eginez.

Horretaz gain, emakidunak arau bereko 8. artikuluan jasotako betebeharrak aintzat hartu beharko ditu.

5.– Kontrola eta ikuskaritza.

Emakidadunak irratiko instalazioak, ekipoak eta irratsaioak egiteko erabiltzen diren gainerako tresnak aztertzen utzi beharko die zerbitzua emateko baimena eman duen administrazioko teknikari eta langileei bai eta irrati-espektroaren jabea den administrazioko teknikari eta langileei ere.

Emakidadunak, horrez gain, obligazioa izango du udal irratiaren datu eta dokumentu guztiak administrazio baimen-emailearen esku jartzeko, emakidadunak zerbitzua emateko bete beharrekoak betetzen dituen ala ez egiaztatzeko. Horretarako, administrazio baimen-emaileak zerbitzua ematen duen entitatearen urteko kontuen kopia ere eskatu ahal izango du.

Kontrol eta ikuskaritza hori emisioak egiten diren orduetan egin beharko da, eta beharrezkoa izango da emakida arautzen duten arauetakoren bat hautsi izanaren susmoa izatea.

6.– Zigor araubidea.

Emakida honen arau hauste- eta zigor-araubideak telekomunikazio arloko araudi orokorrean irrati-hedapeneko zerbitzuetarako ezarritakoak izango dira.

Horren ildotik, eta dena delakoa ere udalak soinuaren maiztasun modulatuko uhin metrikoen bidezko irrati-hedapenaren zerbitzurako aukeratzen duen zuzeneko prestazio formula, Euskal Autonomia Erkidegoaren administrazio orokorraren ikuskaritza eta zigor ahalmena osatzen duten legezko xedapenak aplikatuko zaizkio, hori baita zerbitzu publiko hau egiteko baimena ematen duena.

7.– Iraupena eta luzapena.

Zerbitzua emateko epea hamar urtekoa da, baimena ematea erabakitzen duen Agindua ematen denetik hasita. Hala ere, beste hamar urtetarako ere luza daiteke, baldin eta luzapena emakida hau bukatu aurreko lau hilabeteetan eskatzen badu.

cerse, el control y garantía de respeto a los principios anteriormente enunciados lo ejercitará el Pleno de la Corporación Municipal.

Dentro de la programación que se emita deberá quedar garantizada, en todo caso, la presencia del uso del euskera en los términos previstos en el artículo 2 del Decreto 138/1994.

Asimismo, en la prestación del servicio la concesionaria ha de observar las obligaciones recogidas en el artículo 8 de la misma norma.

5.– Control e Inspección.

El concesionario queda obligado a facilitar el acceso a las instalaciones, equipos y demás instrumental que permitan el desarrollo de las emisiones, al personal técnico e inspector de la Administración concedente del servicio y de la Administración titular del espectro radioeléctrico.

El concesionario, asimismo, deberá facilitar a la Administración concedente cuantos datos y documentos se produzcan por la emisora municipal y sirvan para comprobar el ajuste del concesionario a los requisitos de prestación del servicio. En este sentido, la Administración concedente podrá solicitar copia de las cuentas anuales relativas a la Entidad prestadora del servicio, en cuanto a este servicio se refiera.

El acceso, que deberá producirse en el horario habitual de las emisiones, deberá estar razonablemente fundamentado en una posible vulneración de cualquiera de las disposiciones que rigen la presente concesión.

6.– Régimen sancionador.

La concesión queda sujeta al régimen infractor y sancionador fijado por la normativa general de telecomunicaciones, en lo que a los servicios de difusión sonora queda establecido.

En este sentido, independientemente de la fórmula de prestación directa del servicio mediante la cual acometa el Municipio la prestación del servicio de radiodifusión sonora en ondas métricas con modulación de frecuencia, le serán de aplicación las disposiciones legales y reglamentarias que conforman la facultad inspectora y sancionadora de la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi, como Institución concedente del referido servicio público.

7.– Duración y prórroga.

El plazo de concesión del servicio queda fijado en diez años desde la fecha de la Orden que resuelve el otorgamiento de la concesión, pudiendo prorrogarse por un periodo idéntico, siempre y cuando solicite la misma dentro de los cuatro meses anteriores a la conclusión del periodo de la presente concesión.